



IKASTARO OSAGARRIA OSASUN EKINTZA KOMUNITARIOA (2. ED)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2022/2023

ARLOA: Osasun Zientziak

KREDITUAK: 4 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 80€ (%50-eko beherapena, kontsultatu. Asegurua: 4 €, galdetu)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Yolanda González Rábago

AURKEZPENA

COVID19 Osasunaren Sustapena eta Osasun Komunitarioa gizarte-garapenaren eta -ongizatearen oinarrizko zutabeak dira. Ikastaro hau Osasun eta Osasun Komunitarioa Sustatzeko Masterreko parte da eta helburua da ikasleei funtsezko kontzeptu batzuk txertatzea Osasunaren Sustapenaren eta Osasun-arloko Ekintza Komunitarioaren jatorria eta printzipioak ulertzeko, komunitatearen osasuna hobetzeko tokiko ekintzaren testuinguruan kokatuta. Ikastaroak diziplina anitzeko izaera du, eta errealitate profesionalari lotuta dago. Online prestakuntza da, tutoretza pertsonalizatuarekin eta ikasleen egoera profesionalera eta prestakuntza-beharretara egokituta Ikastaroa lau gaitan banatuta dago: 1. gaia. Osasun-arloko ekintza komunitarioaren sarrera 2. gaia. Osasun komunitarioko prozesua hasten 3. gaia. Informaziotik ekintzara 4. gaia. Ekintza komunitarioa COVID19 garaian.

ZURE BILA GABILTZA

Osasunaren Sustapena eta Osasun Komunitarioa gizarte-garapenaren eta -ongizatearen oinarrizko zutabeak dira. Ikastaro hau Osasun eta Osasun Komunitarioa Sustatzeko Masterreko parte da, eta helburua da ikasleei funtsezko kontzeptu batzuk txertatzea Osasunaren Sustapenaren eta Osasun-arloko Ekintza Komunitarioaren jatorria eta printzipioak ulertzeko, komunitatearen osasuna hobetzeko tokiko ekintzaren testuinguruan kokatuta. Ikastaroak diziplina anitzeko izaera du, eta errealitate profesionalari lotuta dago. Online prestakuntza da, tutoretza pertsonalizatuarekin eta ikasleen egoera profesionalera eta prestakuntza-beharretara egokituta.



IRTEERA PROFESIONALAK

Ikastaroak osasunaren sustapenean eta osasun lan komunitarioan oinarritutako lanpostuetan lan egiteko prestakuntza eskaintzen du. Gainera, lantzen diren gaitasunak baliagarriak izan daitezke osasunaren sustapena ardatz ez duten baina osasuna hobetzeko eta osasunean esku hartzeko modua duten lanpostuetan. Besteak beste:

- Osasun sustapeneko teknikariak, administrazio publikoetan dihardutenak (osasun sailak, udalak, diputazioak).
- Osasun komunitarioko teknikariak, osasun erakundeetan dihardutenak.
- Osasunaren edo osasun komunitarioaren sustapeneko teknikariak, gizarte erakundeetakoak edo fundazioetakoak.
- Osasun komunitarioa eta osasunaren sustapena ikertzen duten ikertzaileak, ikerketa erakundeetan edo unibertsitateetan dihardutenak.
- Osasun komunitarioaren eta osasunaren sustapenaren arloko irakasleak.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2022/03/13-tik 2022/04/17-ra

EMATEKO TOKIA: On-line

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Soziologia eta Gizarte Langintza Saila

HELBIDEA: Sarriena z/g. 48940 Leioa

TELEFONOA: 94 601 5129

POSTA ELEKTRONIKOA: yolanda.gonzalezr@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.